

EKITALDI POLITIKOAK

MITINA LABRIT PILOTALEKUAN



TOKIA: Iruñeko Labrit pilotalekua. **HIZLARIAK:** Julen Mitxeltoarena, Josu Beaumont, Fernando Barrera eta Arnaldo Otegi. 1.500 lagun elkartu ziren. **GERTAKARIAK:** Nafarroako Foruen monumentuaren eskultura zegoen oholtzan.

«Abertzale arteko lehen mailako elkarrizketara» deitu du Otegi

EHrentzat, lurraldetasuna, demokrazia eta subiranotasuna dira ziklo berri horren oinarri

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Arnaldo Otegi deia egin zien atzo «abertzale guztiei lehen mailako elkarrizketa politikoa egiteko». «Lurraldetasuna, demokrazia eta subiranotasuna dira ziklo berri horren oinarri» EHren ustez.

Hautes-elkargoak kanpainako lehen mitinerako Iruñeko Labrit pilotalekua aukeratu zuen, atzo arratsaldean. Arnaldo Otegi EHko bozeramaileak «abertzale guztien arteko elkarrizketa politikoa» dela egin nahi duten eztabaida azpimarratu zuen.

Horretarako ziklo politiko berri bat hastea «beharrezkoa» dela adierazi zuen, eta «autonomismoa hilda» dagoela ohartarazi zien EA eta EAJri. Hala, beharrezkoa jo zuen «haur jaioberrientzako subiranotasuna, lurraldetasuna eta bakea eskaintzen dituen etxebizitza eraikitzea».

«Elkarrizketa nahi dutela» aldarrikatu zuen, baina «norekin eta zertarako» ongi zehaztu behar direla azpimarratuta. «Akordio aurrerakoi bat erdiesateko formula jarri dugu. Akordioa elkarrizketa eta herriaren nahia errespetatzea da», erantsi zuen.

Halaber, eskaintza horrekin PPren eta PSOEn «eskaintza faxista hondoratuko» dutela gaineratu zuen, eta maiatzaren 13an «jauzi berria» emanen dutela azpimarratu zuen. «Ezker abertzalerik gabe ez dago benetako aldaketarik, eta maiatzaren 13an salto berria emango dugu».

Mayor Oreja PPko hautagaiari ez duela «deus eginen» jakinarazi zion, «ezker abertzaleak ez diolako utziko». Ildo honetan, «ezker abertzalea herri honen arazoa baino giltza» dela jakinarazi zion.

Halaber, EAJ-EAri dei egin

ESANAK

ARNALDO OTEGI
(EHko bozeramailea)

«Akordio aurrerakoi bat lortzeko formula jarri dugu. Akordioa herriaren nahia errespetatzea da»

«Ezker abertzalerik gabe ez dago benetako aldaketarik»

PERNANDO BARRENA
(EHko Nafarroako legebiltzarkidea)


«Maiatzaren 13an nafarrek bozkatu ezin dugun arren, boto nafar bakarra EHri emandakoa izanen da»

zion Gasteizko Legebiltzarrean «zein aldetan eseri behar duten esateko».

«Nafarroa gabe ez goaz inora»

Ekitaldi politikoa «Euskal Herriko hiriburu historikoan» izanik, Otegi Telesforo Monzonen hitzak gogoratu zituen «Nafarroa gabe» ez doazela inora esanez, eta bozkatzera «Euskal Herri osoko ordezkapen» moduan joan direla esan zuen.

Pernando Barrera EHko Nafarroako parlamentarioak UPN-PPk hauteskundeetarako egin duten eskaintza «Madrilentzat agintzea» dela salatu zuen. «Dena Nafarroarentzako, baina Nafarroa gabe», esan zuen. Hala, maiatzaren 13an «nafarrek bozkatu ezin dugun arren, boto nafar bakarra EHri ematen zaiona» izanen dela gaineratu zuen.



MIKEL SAIZ
Arnaldo Otegi, atzo Iruñeko Labrit pilotalekuan egindako hitzaldian.

AGIRIA

Burujabetzarako eskaintza

EAJ, EA, AB eta «Euskal Herriaren alde indarrak biltzeko prest dauden eragile sozial, sindikal eta kulturalak» egin dien eskaintza bost puntu nagusitan laburbildu du Euskal Herriarrok hauteskunde elkargoak:

1. Aipatu eragileok, Euskal Herriak burujabetzan eta bakean bizitzeko duen eskubide eta beharrez jabeturik, gure herriarentzat marko demokratiko eta nazional bat eraikitzen hasateko borondatea aldarrikatzen eta konpromisoa hartzen dugu.
2. Lurralde guztietako euskal herritarrok gure etorkizuna determinatzeko dugun helburua aldarrikatzearekin batera, gaurdanik eszenatoki horretara eraman behar gaituen nazio estrategia demokratikoa abian jartzeko konpromisoa dugu, gaurdanik herri honen geroa eraikitzen hasiz.
3. Udalbiltza gure lehen nazio instituzioa izaki, eta aipatu estrategiarako ezinbesteko tresna, Euskalduna zein Kursaal Jaurregietan onartutakoarekin bat egiten dugu, eta gure hautetsi guztiekin ildo eta helburu horiek jorratu eta lantzeko konpromisoa hartzen dugu.
4. Udalbiltza lehen nazio instituzioa bada ere, herri honen egituraketa nazionala eta integrala bilatzen dugunok, horretarako ezinbestekoa izango diren beste hainbat subjektu, foro eta instituzio nazional bultzatu eta babesteko hitza ematen dugu. Euskal Herriak dituen gabezia instituzional, ekonomiko, sozial, kultural eta linguistikoei aurre egiteko konpromisoa gurea da, horretarako munduan zehar dauden beste herri guztiak bezalaxe behar ditugun tresna eta baliabideak abian jarri.
5. Azkenik, ezinbestekoa ikusten dugu guk kudeatzen ditugun edo ditzakegun instituzio guztiak nazio prozesu horren zerbitzura jartzea, horretarako, Gasteizko instituzioetan ere, instituzio hitzarmen orokor bat bideratuz.

Hau da Euskal Herriarrok-en proposamena, guztiak bezalaxe irekia eta zabala izan nahi duena, eta baldintza bakarra eskatzen duena: Euskal Herriaren interesak alderdien interesen ginetik jartzea. Euskal Herria dugulako helburu, bakea eta burujabetza nahi dugulako.

Burujabetzaren aldeko Hitzarmen Nazionala aurkeztu die EHk euskararen inguruko eragileei

Axun Erzibengoa | PASAIA

Euskararen inguruko eragileei Burujabetzaren aldeko Hitzarmen Nazionala aurkeztu zien atzo EHk Trintxerpen, Pasaia alkateordetzan. «Menpekotasunak atzean utzi eta Euskal Herria bide berri batean jartzeko garaia» iritsi dela adierazi zuen Antxon Morcillo EHren Arabako zerrendaburuak. Gaur egungo egoera aldatzeko burujabe izatea beharrezkoa jo zuen, baita euskara bere tokian jartzeko ere. «Egungo markoetan euskarak ez du tokirik». Horregatik, hitzarmenarekin bat egiteko eskatu zieten euskara eragileei.

Inaxio Agirre euskara teknikariak EHk proposaturiko hizkuntza politika berriaren ardatz nagusiak azaldu zituen: Euskal Herriko hizkuntza politika eta zuzendaritza bakarra; euskara hizkuntza ofiziala izatea Euskal Herri osoan; euskara berreskuratzekeo inflexio puntua bermatzea; hizkuntza normalkuntza bideratzeko eremu intentsiboak izendatzea, eta euskararen hizkuntza plangintza nazionala garatzea.

Euskara arloan lan egiten duten zenbait ordezkari izan ziren aurkezpenean, baita Julen Kalzada eta Jon Urrujolegi ere.